

**22»** Bikain ari da Valentzian Velimir Perasovic Baskoniako jokalaria eta entrenatzaile ohia

**23»** Maite Azkoaga Realeko belar hockey taldeko kapitaina, taldeak egindako lehen itzuli bikainaz

Ernesto Valverdek pizgarritzat du Ibai Gomez, eta erdilaria ikusgarri ari da. Zortzi gol sartu ditu; sei, aulkitik irtenda. Halere, lehiak aldatzeko baino gehiagorako balio duela ari da erakusten.

## Suziri zuri-gorria

Haritz Gallastegi

Ibai Gomez izan zen Athleticen Real Madrilen aurka jokatu zuen partidaren gehien nabarmendu zen futbolarietako bat. Talde zuri-gorria indarra galtzen ari zenean zelairatu zen, eta neurketa astindu zuen. Taldekideak zein harmailak pizteko indarra erakutsi zuen. Gol ikusgarria ere sartu zuen. Taldekideek etengabe eman zioten baloia, arriskua sortu ahal izateko. Carlo Ancelotti ere konturatu zuen haren arriskuak, eta Sergio Ramos jarri zuen haren gainean azken minutuetan. Hala ere, erdilari bilbotarraren ekarpena ez zen nahikoa izan irabazteko, baina aurrera begira baikor izateko bi gauza utzi zituen bere jokoak: baretik, talde baten aulkian dauden futbolariaren garrantzia berretsi zen; eta, bestetik, beste behin ikusi zen Athleticen gainerako erasoko jokalariek ez dituzten ezauzgarriak azalazten dituela zelaian dagoen bakoitzean.

### 1. Eskuin oinean, misila

Bi dohain nabarmentzen dira beste guztien gainetik Ibai Gomez-en jokoan. Batak izaerarekin dauka zerikusia. Lotsagabea eta ausarta da. Gustuko du arreta bereganatzea. Ez da sekula kikitzen. Baloia etengabe eskatzen du. Eta horrek asko balio du egungo futboleant. Jokalari asko baitaude haizea alde dutenean gauza harrigarriak egiteko gaitasuna dutenak, baina egoera proposa ez denean ezkutatzeko joera dutenak. Ibai ez da horrelakoa. Eta taldearentzat garrantzitsua da kikitzen ez diren jokalariek izatea.

Beti aurrera begiratzeko ohitura duen lagunaren izaera eraginkor bihurtzeko, bere eskuin oina erabiltzen du Ibaik. Postura guztiak menperatzen ditu. Baloia edozein eratan jota dauka arriskua sortzeko gaitasuna: areaz kanpotik jaurtiketa oso indartsua dauka; erdiraketak ere neurtuak eta biziak egin ohi ditu, errematatzerara doan taldekidearentzat proposak direnak; eta oinaren kanpoaldearekin ere bikain jotzen du baloia. Bere bu-

### ↓ Nortasun agiria

- **Izena.** Ibai Gomez Perez.
- **Jaioterra.** Bilbo.
- **Jaiteguna.** 1989ko azaroaren 11.
- **Altuera.** 1,77 metro.
- **Pisua.** 72 kilo.
- **Postua.** Erdilaria.
- **Ibilbidea.** Santutxu (1999-2009), Sestao (2009-10), Athletic (2010etik).
- **Estreinakoa Athleticekin.** Carlo Ancelotti ere konturatu zuen haren arriskuak, eta Sergio Ramos jarri zuen haren gainean azken minutuetan. Hala ere, erdilari bilbotarraren ekarpena ez zen nahikoa izan irabazteko, baina aurrera begira baikor izateko bi gauza utzi zituen bere jokoak: baretik, talde baten aulkian dauden futbolariaren garrantzia berretsi zen; eta, bestetik, beste behin ikusi zen Athleticen gainerako erasoko jokalariek ez dituzten ezauzgarriak azalazten dituela zelaian dagoen bakoitzean.
- **Partidak Athleticekin.** 100.
- **Golak Athleticekin.** 15.

ruan eta bere jaurtiketan konfiantza neurrigabea duenez, area inguruko edozein lekutatik ahallegintzen da atezaina estu hartzen. Horri lortuta, zenbaitetan ezinezkoak diren gauzak egiten saiatzen dela. Baina Athleticen asko ematen dio. Aurkariaren arreta bereganatzen baitu. Oscar de Marcosekin, Ander Herrerarekin edo Iker Muniainekin ez dute kezkarik izaten arean sartzen diren arte. Beraz, Ernesto Valverderentzat ona da jokatzeko era ezberdina dituzten futbolariak izatea.

### 2. 72 minutuz behin gola

Ibai Gomez Athleticen golegilerik onena da Ligan. Guztira zortzi aldiz zulatu du aurkariaren sarea. Liga osoan hamabost futbolari baino ez daude berak baino gol gehiago sartu dituztenak. Baina inor ez da bilbotarra bezain eraginkorra. Batez beste, 72 minututik behin lortzen du atezaina gaingidzea. Ligan ez dago beste inor estatistika hori hobetzen duenik. Gainera, ez da ahaztea komeni hegaleko jokalaria dela. Erasokoa, baina erdilaria. Eta harrobikoa. Athleticentzat luxu bat da etxekoa den futbolari batek gaitasun hori izatea. Eta beste dohain bat ere badauka: neurketa esanguratsu eta garrantzitsuetan agertzeko gaitasuna dauka. Real Madrili hiru gol sartu dizkio, Realari San Mames zaharrean jokatu eta azken derbian ere gola sartu zion. 2012an Europako Ligako finalerdietako itzuliko parti-



Ibai Gomez, Real Madrili sartutako gola ospatzen. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

dan Sporting Lisboari gola sartzeko gai izan zen... Argi dago: badauka zer bait.

### 3. Muniainekin lehiatzen

Euskarrien aurretik jokatzeko duen futbolari gehienak postu batean baino gehiagotan jokatzeko gaitasuna dute. Baina, hasieran, nahiko zehaztuta dauka futbolari bakoitzak non aritu behar den. Ibai eskuina da, baina ezker hegalean hobeto moldatzen da. Eta han aurkari gogor bat dauka. Taldeko izar nagusietako batekin lehiatu beharrean dago hamaikakoan lekua izateko, Muniainekin, alegia. Izaera oldarkorra da bi jokalariek parekatzen dituen dohain bakarra. Gainerakoan batarren jokoak ez dauka bestearekin inolako antzik.

Muniain artista da baloia badeu, lerro artean jokatu, eta erdiko bidea hartuta aurkariaren armiarma sarean zuloa egiteko. Gol sena falta zaio, ordea. Ibaik, ordea, gurago du hegala baliatu arriskua sortzeko. Ez da samurra Muniainekin lehiatzea. Txantreako jokalariek bizitasuna berreskuratzen du, eta ohikoa da hasierako hamaikakoan. Horrek behartu du Ibaik hobetzera. Badaki ondo jokatu behar duela arreta bereganatu nahi badu. Eta, oraingoz, badirudi taldekideen arteko borro-

kak mesede egin diola bizkaitarri.

### 4. Oztopo asko ibilbidean

Ibaik ez du zeresana ematen hedabideen aurrean. Haren adierazpen bakarrak bereganatu du zaleen arreta. Hauxe esan zuen orain bi urte Bukaresten Atletico Madrilen aurka Europako Ligako finala galdu berrian: «Gurago dut Athleticekin txapeladunorde izan beste talde batekin txapeladun izatea baino». Jarrizaitzearen oso gustuko esana, duda barik.

Baina Athleticera ailegatu eta nabarmendu arte egin behar izan duen bideak ere egin du Ibai zaleen kutun. Bere aita zortzi urtez Lezaman entrenatzaile lanetan aritu arren, Santutxun eta Sestanon erakutsi zuen aukera merezi zuela. Athletic B-ra arte ez zuen elastiko zuri-gorria jantzi. Bigarren taldean bere mailaren berri eman ostean, Joaquin Caparrosen eman zion debuta egiteko aukera 2010-11ko sasoiaren hasieran. Bada, txikitako ametsak bost minutu iraun zion. Belauna bere lekutik irten zitzaion arte. Baina ez zuen etsi. Ordutik gogor egin du lan, eta orain hasi da ereindakoa jasotzen. Eta ikasten eta hazten ari den bitartean bere auzoko gaztetxoek erakusten ari da. Teknikari sena ere baitu.

## → Laburrak

### Balentiaga: «Oso gustura ari naiz zelaian»

**ATHLETIC** Athleticen bezala, Mikel Balentiagak ere une gozoa bizi du, Ernesto Valverde haren alde egiten ari baita sarri. «Oso gustura ari naiz zelaian», aitortu zuen atzo. Ezker hegaleko atzelariak argi du helburua: «laugarren postuari eustea». Ez da fio hurrengo aurkariak. «Celta bolada onean da, eta aurkari arriskutsua da».

### Andres: «Oldarkortasuna berreskuratzen behar dugu»

**OSASUNA** Andres Fernandez arabera, Osasunari bizitasuna eta oldarkortasuna falta izan zaio Athletic eta Vila-real aurka, eta horren ondorioz galdu ditu bi partidak. Hala, bi dohain horiek berreskuratzen behar ditu Iruñeko taldeak igandean Getaferi irabazi nahi badio. «Final baten parekotzat» jo du lehia hori atezainak.

### Hiru partidako zigorra Cristiano Ronaldori

**REAL MADRID** Hiru partidako zigorra ezarri diote Cristiano Ronaldo Real Madrileko jokalariei: bat, Carlos Gurpegi eta Ander Iturraspe Athleticen jokalariekin izandako liskarrik, eta bi, behin txartel gorria ikusi ondoren, aldagela bidean epailearen aurkako keinuak egiteagatik. Real Madrilek helegitea aurkeztuko du.



Cristiano Ronaldo. ALFREDDO ALDAI / EFE

### Athletic ostiralez ariko da Granadaren aurka

**ESPAINIAKO LIGA** Zehaztu dituzte 26. jardunaldiko egunak eta orduak. Athleticen otsailaren 28an, ostiralez, hartuko du Granada (20:30). Osasunak, berri, larunbatean egingo dio bisita Lanverteri (18:00). Azkenik, Realak, igandean ariko da Sevillaren zelaian (19:00).